

**2025eko OTSAILAREN 17AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK
EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA** **5 zk.**

Udaletxeko batzar-aretoan, 2025eko otsailaren 17an, arratsaldeko ordu batean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko.

Batzarkide hauek bertaratu dira:

Batzarburua	IRUNE URBIETA ALBERDI AND
Batzarkideak	GARBIÑE OIARBIDE IRURETAGOiena AND IBAN SAN MARTIN HERNANDEZ JN. GERVASIO GABIRONDO FERNANDEZ JN. INAXIO ILLARRAMENDI LIZARRETA JN.
Idazkaria	AMAIA GORROTXATEGI ZUBIZARRETA AND.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaia aztertu eta eztabaidatu ditu Tokiko Gobernu Batzarrak.

EGUNEKO AZTERGAIK

1.- AURREKO BILKURAREN AKTA ONESTEA

2025eko otsailaren 10eko bilkuraren akta aho batez onartu dute, zuzenketarik egin gabe.

**2.- EUSKARA DEPARTAMENTUKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO
DEIALDIA 2025 URTERAKO**

a) Euskararen erabilera sustatzeko dirulaguntzak

Espedientea: 2025E9990001

Euskara Departamentuko dirulaguntzak jasota daude ZARAUZKO UDALEKO DIRULAGUNTZEN 2024-2027 PLAN estrategikoan (Udalbatzak 2024ko urtarrilaren 25ean onartutakoa), eta hauek dira haien oinarri arautzaileak: ZARAUZKO UDALEKO DIRULAGUNTZEN ORDENANTZA OROKOR ARAUTZAILEA (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2024ko apirilaren 5koa, 66 zk.) eta EUSKARA DEPARTAMENTUKO DIRULAGUNTZAK

EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2024ko apirilaren 5koa, 66 zk.).

2024ko urtarrilaren 25ean egindako osoko bilkuran Udalbatzarrak onartu zituen EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK.

Horrenbestez, eta Euskara Departamentuak proposatuta, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU**:

Lehena.- EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO deialdia onartzea. Dirulaguntzak 2025. urtean emango dira, norgehiagoka araubidez.

Bigarrena.- Ondorengo gastua egiteko baimena ematea, partida honen kontura:

- Aurrekontu-partida: 1 0701.481.01.335.00 2025 04319
- Euskara sustatzeko dirulaguntzak: 8.000,00 euro.

Hirugarrena.- Eskatutako informazioa DIRULAGUNTZEN DATU-BASE NAZIONALEAN (BDNS) erregistratzea, hark emandako bitarteko elektronikoen bidez, deialdiaren testuarekin, haren laburpenarekin eta datu egituratuekin batera.

Informazioa erregistratu ondoren, BDNSk Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren esku utziko du deialdiaren laburpena, argitara dezan. BDNSk deialdiari eman dion identifikazio-kodea agertu beharko da laburpenaren argitalpenean.

EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO 2025ERA KO DEIALDIA

XEDAPEN HAUEK EZARTZEN DITUZTE OINARRI ARAUTZAILEAK :

- Zarauzko Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokor arautzailea (2024ko apirilaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 66 zk.).
- Euskararen erabilera sustatzeko dirulaguntzak emateko oinarri espezifikoak (2024ko apirilaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 66 zk.).

1. Helburua
2. Eskaerak
3. Onuradunak
4. Dirulaguntza emateko irizpide objektiboak
5. Kontzeptuak eta gehieneko zenbatekoak
6. Onuradunen betebeharrak
7. Diru-zuzkidura eta aurrekontuko partida
8. Ebazpena: organo eskudunak eta jakinarazpen-epea
9. Dirulaguntzaren erabileraren justifikazioa
10. Dirulaguntzaren abonua eta aurrerakinak
11. Publizitatea
12. Diruz lagun daitezkeen gastuak

13. Araudia
14. Errekurtsokak

1. HELBURUA

Deialdi honen helburua da 2025. urtean euskararen erabilera sustatzera bideratuta dauden jarduerak egiteko, pertsona fisikoei eta irabazi-asmorik gabeko erakundeei edo elkarteei norgehiagoka araubidez emango zaizkien dirulaguntzen prozedura arautzea.

Jarduerak beren proiektzio eta interesagatik bat etorriko dira Zarauzko Udalaren Euskara Departamentuaren honako programen helburuekin:

- **Motibazioa sustatzeko antolatutako jarduerak eta programak**
Euskararen aldeko motibazioa helburu duten jarduerak eta programak.
- **Euskararen ezagutza sustatzeko antolatutako jarduerak**
Euskara gai nagusi gisa dutenak: horien artean sartuko dira euskararen egoera ezagutarazten duten jarduerak; euskara berreskuratzeko hitzaldiak, ikastaroak, plangintzari buruzko ekintzak, etab.
- **Euskararen erabilera sustatzea helburu duten jarduerak eta programak**
Hauek bereiziko dira:
 - ✓ Euskararen erabilera-kopuruan eragiten dutenak: jarduera bera euskaraz izatea, jarduerak euskara mintzatua eta idatzia sustatzea...
 - ✓ Euskararen kalitatea bultzatzen dutenak: maila jasoko euskara, hizkuntza teknikoak, etab. sustatzeko.
- **Elkarteek Zarautzekin eta euskararekin lotuta antolatutako proiektuak**
Zarautzekin eta euskararekin lotutako proiektuak.

Dirulaguntzen kontzesiotik kanpo utziko dira euskara- edo gizarte-arloko eskatzaileek zuzenean egiten ez dituzten programak eta jarduerak.

Dirulaguntza jaso dezaketen jarduerak:

- a) **Euskarazko argitalpenak**
Irizpideak:
 - ✓ Osorik euskaraz argitaratzea.
 - ✓ Besteak beste, Zarautz izatea bere hedapen-esparrua.
 - ✓ Irabazi-asmorik ez izatea.
 - ✓ Udalaren beste dirulaguntza bat ez jasotzea.
- b) **Elkarteek antolatutako orotariko jarduerak**
Irizpideak:
 - ✓ Euskararen erabileraren normalizazioa azpimarratzen duten elkarteak izatea.
 - ✓ Urteko jarduerak eta programak euskaraz egitea. Gaztelaniaz egitekotan, haien helburua euskararen erabilera sustatzea izatea.
 - ✓ Jarduera Zarautzen ere egitea.
 - ✓ Irabazi-asmorik ez izatea.
 - ✓ Udalaren beste dirulaguntza bat ez jasotzea.
- c) **Urteko proiektuak**
Irizpideak:



- ✓ Elkaratek urte osoko jarraitutasunarekin antolatutako jarduera egonkorrak.
- ✓ Hizkuntza-normalizazioko proiektuak, euskararen ezagutza, erabilera eta hedapena bultzatzen dituztenak, esparru guztietan –eta bereziki, jarduera sozioekonomiko, sozial eta kulturalen sektoreko elkarreetan– .
- ✓ Herritar guztien parte-hartzera irekita dauden jarduerak izatea.
- ✓ Osorik euskaraz izatea.
- ✓ Udalaren beste dirulaguntza bat ez jasotzea.

d) Ezohiko proiektuak eta jarduerak

Irizpideak:

- ✓ Elkaratek antolatutako ezohiko proiektuak eta jarduerak.
- ✓ Hizkuntza-normalizazioko proiektuak, euskararen ezagutza, erabilera eta hedapena bultzatzen dituztenak, esparru guztietan –eta bereziki, jarduera sozioekonomiko, sozial eta kulturalen sektoreko elkarreetan– .
- ✓ Herritar guztien parte-hartzera irekita dauden jarduerak izatea.
- ✓ Osorik euskaraz izatea.
- ✓ Udalaren beste dirulaguntza bat ez jasotzea.

2. ESKAERAK

Inprimakiak (7.3A, 7.3B, 7.3D ereduak) osorik eta ongi beteta aurkeztu beharko dira deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita hilabeteko epean:

- Udaletxean (HAZ - Herritarren Arreta Departamentua, Kale Nagusia 29): astelehenetik ostiralera, 7:30etik 15:00etara; ostegunetan: 17:00etatik-19:00etara.
- Zarauzko Udalaren zerbitzu telematikoen bitartez:
<https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/home.do?De=079&hizkuntza=EU>

Eskatzaileak IFKa badu, eskaera derrigorrez egin behar du zerbitzu telematikoen bidez.

Eskaera aurkezteak esan nahi du deialdian jasotako baldintza guztiak onartzen direla.

Eskaera formalizatzeko 7.3A eredu-inprimakia beteko da, eta bertan, jarduera edo proiektuaren nondik norakoak zehaztu.

Eskabidearekin batera, deialdi honen amaieran adierazten den dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Eskatzen diren agiritakoren bat Zarauzko Udalaren esku baldin badago, dirulaguntzaren eskatzaileak erabil dezake urriaren 1ko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28.3 artikuluan xedatzen duena, baina agiriak zein egun, organo edo bulegotan jaso edo egin ziren adierazi beharko du, betiere dokumentu horiek loturik diren prozedura bukatu eta bost urte baino gehiago igaro ez bada.

Eskaera-orria edo harekin batera aurkeztu beharreko agiriak akatsez edo osatu gabe baldin badaude, interesdunari errekerimendua egingo zaio hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko dokumentuak eramateko, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, urriaren 1ko 39/2015 Legeak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 68.1 artikuluan xedatzen duenaren arabera.

Eskaerek Euskara Departamentuaren oinarri espezifikoetan zehaztutako baldintzak bete beharko dituzte.

3. ONURADUNAK

Dirulaguntzen onuradun izateko baldintzak:

Dirulaguntza emateko arrazoi izan zen jarduera egin behar duen pertsona edo entitatea izango da dirulaguntzaren onuraduna, edo dirulaguntza ematea legitimatzen duen egoeran dagoena.

Egoitza edo ordezkaritza iraunkorra Zarautzen duten pertsonak edo elkarteek eskuratu ahal izango dituzte dirulaguntzak. Salbuespen gisa, udalerrarentzat interesgarriak diren jarduera sozialek ere laguntza jaso ahal izango dute, nahiz eta elkarte edo erakunde eskatzaileak Zarautzen ordezkaritza ofizialik ez izan.

Elkarteek eta fundazioek, dirulaguntzen onuradun izan ahal izateko, dagokien erregistro ofizialean inskribatuta egon beharko dute.

Dirulaguntzen onuradun izateko debekua:

Indarrean dagoen araudiaren arabera eskubide hori mugatuta edo ezabatuta duten pertsonak edo entitateek ezin izango dituzte dirulaguntza hauek jaso. Era berean, ezin izango dute dirulaguntzarik jaso ebazpen irmo baten bidez eskubidea galtzeko zigorra jaso dutenek, ebazpenean zehaztutako epean, edo Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan adierazitako beste edozein kasutan daudenek.

Era berean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko udal araudiaren arabera, inguruabar hauetako batean dauden entitateak ezingo dira izan dirulaguntzen onuradun:

- Uztailaren 28ko 26/2015 Lege Organikoak jarritakoaren arabera, sexu-delituengatik zigor administratiboak, laboralak edo penalak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak.
Emakume eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta 1/2023 Legegintzako Dekretuan, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena, jarritako betekizunak betetzen ez dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren aurkako helburuak, sarbide-sistemak, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak dituzten, eta sexuaren, ideologiaren, jaioterriaren, nazionalitatearen edo sexu-joeraren ziozko diskriminazioa egiten duten pertsona fisiko nahiz juridikoak (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 40 artikulua).
- Berdintasunerako eta sexuagatik diskriminatuta ez izateko eskubidea urratzeagatik zigor administratibo, laboral edo penalak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 40 artikulua).

Irakaskuntza-zentroak deialdi honetatik kanpo geratuko dira.

Ez dira onartuko eduki iraingarriak edo pertsonen eskubideen aurkakoak dituzten jarduerak edo programak.

4. DIRULAGUNTZA EMATEKO IRIZPIDE OBJETIBOAK

Irizpide eta balorazio-muga hauek kontuan izanda onartuko diren proiektuak hautatuko dira (gehienez 100 puntu). Gutxienez 50 puntu lortzen ez dituzten proiektuek ez dute dirulaguntzarik jasoko.

- Elkartearen ibilbide, jarraitutasun eta egonkortasun frogatua: puntu 1 /urteko; gehienez 20 puntu.
- Burutu beharreko programaren edo jardueraren kalitatea eta interesa, euskararen normalizazioaren ikuspegitik: gehienez 30 puntu.
- Bideragarritasun ekonomikoa eta finantza-baliabideak: gehienez 10 puntu.
- Aurkeztutako programaren gizarte-eragina, jarduerak irekiak eta herritar guztiei zuzenduak izatea, parte-hartzaile kopurua: gehienez 10 puntu.
- Beste elkarte, herritar eta gainerako gizarte-eragileen inplikazio-maila eta ekimen berritzailea izatea: gehienez 10 puntu.
- Talde, elkarte edo erakundea Zarauzkoa izatea: gehienez 10 puntu.
- Dirulaguntza jasotzen duten elkarten ardura-postuetan eta erabakitze-organoetan emakumeen parte-hartzea gutxienez % 40koa izatea: 5 puntu; betetzen ez bada 0 puntu.
- Dirulaguntza jasotzen duten elkarten osieran emakumeen parte-hartzea gutxienez % 40koa izatea: 5 puntu; betetzen ez bada 0 puntu.

Eskatzailea pertsona fisikoa bada proiektuari dagozkion atalak baloratuko dira.

Deialdian kontsignatutako kreditua nahikoa bada jarritako baldintza guztiak betetzen dituzten eskaerei erantzuteko, ez da beharrezkoa izango norgehiagoka prozeduraren hurrenkera jartzea.

5. KONTZEPTUAK ETA GEHIENEZKO ZENBATEKOAK

Deialdi bakoitzean eskaini ahal izango diren kontzeptuak eta gehienezko zenbatekoak ondoren zehaztutakoak dira:

- a) Elkarreek motibazioa sustatzeko antolatutako jarduerak eta programak.
Proposatutako dirulaguntzaren zenbatekoak ez du programaren aurrekontuaren % 75 gaindituko.
- b) Elkarreek euskararen ezagutza sustatzeko antolatutako jarduerak.
Proposatutako dirulaguntzaren zenbatekoak ez du programaren aurrekontuaren % 75 gaindituko.
- c) Euskararen erabilera sustatzea helburu duten Elkarten jarduerak eta programak.
Proposatutako dirulaguntzaren zenbatekoak ez du programaren aurrekontuaren % 75 gaindituko.
- d) Elkarreek Zarautzekin eta euskararekin lotuta antolatutako ezohiko proiektuak eta jarduerak.
Proposatutako dirulaguntzaren zenbatekoak ez du programaren aurrekontuaren % 75 gaindituko.

Dagokion partidaren aurrekontuko diru-izendapenaren mugara arteko dirulaguntzak emango dira; beraz, ordaindu beharreko kantitatea handiagoa bada aurrekontuan horretarako izendatutako kopurua baino, banaketa proportzionala egingo da eskatzaile guztien artean.

Salbuespen gisa, banku-bermeko gastuak diruz lagundu ahal izango dira, diruz lagundutako jarduera modu egokian prestatzeko edo gauzatzeko ezinbestekoak baldin badira, eta horien onarpena Balioespen Batzordearen iritzira utziko da.

6. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

1. Diruz lagundu den jarduera gauzatzea.
2. Zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta Zarauzko Udalekoak egunean dituztela egiaztatzea.
3. Hizkuntzari buruzko baldintzak:

Diruz lagunduko diren jardueren helburu nagusiak euskararen aldeko motibazioa, ezagutza eta erabilera sustatzea direnez, euskara erabiliko da jardueraren arlo guztietan, bai hedapenean bai jarduera bera egiterakoan. Xede-taldearen berezitasunak edo landu beharreko gaiak hala eskatzen duenean, jarduera bi hizkuntzetan egin ahal izango da, beti ere euskara lehenetsita.

4.- Pertsona edo entitate onuradunak indarrean dagoen araudi aplikagarri guztia errespetatu beharko du; eta bereziki 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko udal araudiaren arabera ondorengo baldintzak bete beharko ditu.

- Kontuan izatea gizonen eta emakumeen egoerak, baldintzak eta beharrak desberdinak direla, eta horren arabera, diruz laguntzeko programa edo jardueran genero ikuspegia txertatu beharko du.
- Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan sexismorik gabeko komunikazioa inklusiboa erabiliko du. Emakumeak diskriminatzen dituen edozein irudi edo estereotipo sexista saihestuko du; eta berdintasun-balioak, emakume eta gizonen presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, rol-aniztasuna eta genero-identitate anitzak erakusten dituzten irudiak sustatuko ditu.
- Dirulaguntza justifikatzeko memorian sexuaren araberako datuak eman beharko ditu (kopuru absolutuetan edo portzentajeetan).
- Bermatuko du antolatutako jarduera, ekitaldi edo ikuskizunak eduki sexistarik gabekoak izango direla, eta ezingo dutela diskriminatu sexu, ideologia, jatorri etniko, nazionalitate edo sexu-orientazioko arrazoiengatik.

5.- **1/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoaren arabera** honako betebehar hauek zehazten dira tabakoaren eta edari alkoholduen salmenta eta kontsumoari buruz:

- a) Antolatutako jardueretan edari alkoholduen publizitaterik ez egitea, eta 18 urtetik beherakoei edari alkoholduen eta tabakorik ez saltzea edo hornitzea.

6. **Ingurumenari buruzko Udal Araudiaren** araberako betebeharrak:

- a) Jardueretan sortutako hondakinak sailkatzea eta dagokion moduan kudeatzea.

- b) Birziklatutako materialez egindako papera, kartoia... erabiltzea, bi aldetatik inprimatzea, etab.

7. DIRU-ZUZKIDURA ETA AURREKONTUKO PARTIDA

Dirulaguntzak ondorengo atalean oinarrituta eskatu ahal izango dira. Atalak gehieneko kopuru hau izango du:

Euskara normalizatzeko proiektuak sustatzeko jarduerak

- **Partida: 0701.481.01.335.00 2025 04319**
Euskara sustatzeko dirulaguntza 8.000,00 €

8. EBAZPENA

Ebazpena egiteko Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean jarritakoa jarraituko da, eta administrazio-bidea amaituko da.

Organo eskudunak

- Antolamendua eta instrukzioa (Instrukzio-organoa): Euskara Departamentuko arduraduna.
- Azterketa eta balioespena (Balioespen Batzordea): Kide anitzeko organo bat, Herritarren arloko Informazio-batzordeko kideek osatutakoa.
- Ebazpena (Organo eskuduna): Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari egokituko zaio, Udalaren administrazio-antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenekin eta aldi bateko eskuordetzeekin bat etorritik.

Prozeduraren izapideak bete ondoren, eta ebazpen-proposamena egin aurretik, 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 82. artikuluan aurreikusitako entzunaldiaren izapidea beteko da, prozeduran interesdunek agertutako egintzak eta argudiatutako alegazio eta probak bakarrik agertzen badira edo kontuan hartzen badira izan ezik.

Eskariak ebazteko, gehienez sei hilabeteko epea egongo da, horiek jasotzeko jarritako epea amaitzen denetik, eta ordurako berariazko ebazpenik ateratzen ez bada ezetsi egin direla ulertuko da.

Prozeduraren ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, 39/2015 Legearen 40. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta bere tramitazioa lege horretako 42 eta 44 artikuluek jasotzen dituzten xedapenen arabera egingo da.

Udalak argitaratu egingo ditu emandako dirulaguntzak, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak 18. artikuluan ezarritakoaren arabera.

9. DIRULAGUNTZAREN ERABILERAREN JUSTIFIKAZIOA

Dirulaguntzaren erabilera Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean eta Euskara Departamentuaren Oinarri Espezifikoetan jarritakoaren arabera justifikatuko da, eta 2026ko urtarrilaren 31 baino lehen aurkeztu beharko da.

Udaleko Ordenantza Orokorren 22.1.d) artikuluan jartzen duen bezala, onuradunak jarduera edo programa espezifiko bati dagozkion gastu guztien kontuak aurkeztu beharko ditu (baldin

eta jarduera edo programa zehatz bat egiteko eman bada dirulaguntza). Beraz, diruz lagundutako proiektuaren, jardueraren edo programaren % 100 justifikatu behar du. Justifikatutako gastuak aurrekontuan sartutakoak baino txikiagoak badira, portzentaje berean murriztuko da dirulaguntza.

1. Dirulaguntzaren emakidan jarritako baldintzak bete direla justifikatzeko **jarduera-memoria** bat; hor adieraziko dira burututako jarduerak eta lortutako emaitzak. Memoria horrek gutxienez ondorengo atalak izango ditu:

JARDUERA, PROGRAMA EDO PROIEKTUAREN IZENA

Egindako jardueraren deskribapena:

- a) Egindako jarduerak adieraziko dira: datak, jarduerak, tokiak...
 - Diruz lagundutako jardueren deskripzio zehatza eta edukia.
 - Lortutako helburuak.
 - Genero-ikuspegia txertatzeko hartutako neurrien deskribapen zehatza.
 - Partaideen kopurua sexuaren arabera (kopuru absolutuetan edota portzentajetan).
 - Emaitzen ebaluazioa.
 - Beste batzuk.Dirulaguntzaren balorazio-irizpideak bete direla justifikatzeko jarduera-memoria aurkeztuko da.
 - b) Euskararen erabilera errealari buruzko 7.3E inprimaki-eredua beteko da, eta, hala badagokio, adierazi zein neurri hartu diren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Araudiari dagokionez oinarri hauetan derrigorrez jarritakoak osatzeko.
 - c) Deialdi horren barruan diruz lagundutako jardueren azalpen-memoria, lortutako emaitzen balorazioarekin. Memoriak genero-ikuspegia txertatzeko hartutako neurrien deskribapen zehatza jaso beharko du eta diruz lagundutako proiektuaren parte-hartzaileen edo onuradunen kopurua sexuaren arabera (kopuru absolutuetan edo portzentajetan).
 - d) Adieraziko da, hala badagokio, zein neurri hartu diren **Ingurumenari buruzko Udal Araudiari** dagokionez oinarri hauetan derrigorrez jarritakoak osatzeko.
 - e) Adieraziko da, hala badagokio, zein neurri hartu diren **Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko arreta integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legeari** dagokionez ordenantza honetan derrigorrez jarritakoak osatzeko.
 - f) Diruz lagundutako jarduera egiteko erabilitako material grafikoa eta idatziak: programak, kartelak, iragarkiak, publizitatea...
2. **Memoria ekonomiko** bat, egindako jardueren kostua justifikatzeko; hauek osatuko dute:
 - a) Jardueraren gastuen eta inbertsioen ordainketaren **erantzukizunpeko adierazpen bat**, honakoak adierazita: pertsona edo elkarte hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data, eta, hala badagokio, ordainketa-data. Dirulaguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbiderapenak ere adieraziko dira (erabili 7.3F inprimaki eredua).
 - b) Aurreko paragrafoan aipatutako zerrendan sartutako gastuen frogagiriak, edo pareko froga-balioa edo administrazio-eraginkortasuna duten dokumentuak.

- c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru-sarrera edo dirulaguntza guztien **erantzukizunpeko adierazpena**, elkartearen diruzainak sinatutakoa, horien zenbatekoa eta jatorria adierazita (erabili 7.3F inprimaki eredua).

Hala badagokio, aplikatu gabeko geldikinen kasuan, diru-itzuleraren eta horietatik sortutako interesen ordainketa-gutuna.

Diruz lagun daitezkeen gastutzat hartzen dira lagundutako jardueren izaerari inolako zalantzarik gabe erantzuten diotenak eta dirulaguntzen berariazko deialdiak ezarritako epean egiten direnak.

Zehazki, gastu hauek izango dira diruz laguntzekoak:

–Diruz lagundutako jarduerak antolatu eta gauzatzeko gastuak:

- Materialen, produktuen edo zerbitzuen hornikuntza/alokairua, enpresa osagarrien kontratazioa...
- Komunikazio grafikoa: WEB orria, ikus-entzunezkoak, paperezko argitalpenak...
- Lehiaketako sariak edo/eta jardueren parte-hartzaileen dietak
- Elkartekideei eskainitako urteko bazkaria.
- Soldaten eta zerbitzu profesionalen ordainketa.
- Kolaboratzaileei eskainitako opari edo eskupekoak.
- Elkartearen administrazioa eta kudeaketa. Elkarteen edo federazioen kuotak.
- Azpiegiturak: ordenagailua, telefonoa, Internet...
- Mantenu gastuak: garbiketa, argindarra, berogailua, ur hornidura... eta zergak eta aseguruak.
- ...

Era berean, moduluen bidez justifikatu ahal izango dira zenbait gastu. Gastu-motak eta modulu horien zenbatekoak ondorengoak izango dira:

- Joan-etorriak: 0,29 €/km
- Bazkariak edo afariak: 30,00 €/jankideko

Gastu hauek onartuak izateko behar bezala justifikatu, baliozkotu eta baimendu behar ditu elkarte onuradunak, eta diruz lagundutako jarduerarekin lotura zuzena eduki beharko dute. Balorazio batzordeak erabakiko du azkenean ea kasu bakoitzean honelako gastuak egitea onartzen duen.

10. DIRULAGUNTZAREN ABONUA ETA AURRERAKINAK

Zehaztutako dirulaguntzaren abonua bi zatitan egingo da:

- Zenbatekoaren % 70, dirulaguntza ebazten denean.
- Zenbatekoaren %30, elkarte onuradunak dirulaguntza erabili izanaren justifikazioa aurkeztu ondoren.

11. PUBLIZITATEA

Zarauzko Udaleko Euskara Departamentuak zehaztuko du kasu bakoitzean zein neurri hartu behar diren programa edo jarduerak jasotako finantzazio publikoaren berri emateko, eta kasu bakoitzean zehaztuko ditu zein izango diren euskarriak, kopurua, publizitate agerraldiaren tamaina edo forma...

12. DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUAK

Gastu hauek dira diruz laguntzeko modukoak: diruz lagundutako jardueraren izaerari inolako zalantzarik gabe erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak direnak, eta deialdian jarritako epean egiten direnak.

Dirulaguntzaren deialdian zehaztutako justifikazio-epea bukatu aurretik egindako ordainketa hartuko da gastutzat. Diruz lagun daitezkeen gastuen erosketa-prezioa inoiz ez da izango merkatuko balioa baino handiagoa.

13. ARAUDIA

Deialdi honetan aurreikusi ez den orotan arau hauek aplikatuko dira:

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, dirulaguntzei buruzkoa (2003ko azaroaren 18ko EAO, 276 zk.).
- 887/2006 errege dekretua, uztailaren 21ekoa, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena (2006ko uztailaren 25eko EAO, 176 zk.).
- Zarauzko Udalak dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzailea.
- Zarauzko Udaleko Euskara Departamentuko dirulaguntzak emateko oinarri espezifikoak.

14. ERREKURTSOAK

Deialdi honen aurka, berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean; edo zuzenean inpugnatu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean.

Epeak bi kasuetan deialdi hau argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko dira kontatzen.

b) Errotuluak, irudi korporatiboa eta web-orriak euskaraz jartzeko dirulaguntzak

Espedientea: 2025W9990001

Euskara Departamentuko dirulaguntzak jasota daude ZARAUZKO UDALEKO DIRULAGUNTZEN 2024-2027 PLAN estrategikoan (Udalbatzak 2024ko urtarrilaren 25ean onartutakoa), eta hauek dira haien oinarri arautzaileak: Zarauzko Udaleko dirulaguntzen ORDENANTZA OROKOR ARAUTZAILEA (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2024ko apirilaren 5ekoa, 66 zk.) eta EUSKARA DEPARTAMENTUKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2024ko apirilaren 5ekoa, 66 zk.).

Oinarri horien helburua da errotuluak, irudi korporatiboa eta webguneak euskaraz jartzeko dirulaguntzak ematea.

Orain 2025. urteko dirulaguntzen deialdia onartu behar da. Hori dela eta, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU**:

Lehena.- ERROTULUAK, IRUDI KORPORATIBOA eta WEBGUNEAK EUSKARAZ JARTZEKO DIRULAGUNTZAK emateko deialdia onartzea. Dirulaguntzak 2025. urtean emango dira, norgehiagoka araubidez.

Bigarrena.- Ondorengo gastua onartzea:

Ekitaldia	Aurrekontu-aplikazioa	Zenbatekoa
2025	1 0701.481.01.335.00 2025 04319	6.000,00

Hirugarrena.- Eskatutako informazioa DIRULAGUNTZEN DATU-BASE NAZIONALEAN (BDNS) erregistratzea, hark emandako bitarteko elektronikoen bidez, deialdiaren testuarekin, haren laburpenarekin eta datu egituratuekin batera.

Informazioa erregistratu ondoren, BDNSk Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren esku utziko du deialdiaren laburpena, argitara dezan. BDNSk deialdiari eman dion identifikazio-kodea agertu beharko da laburpenaren argitalpenean.

ERROTULUAK, IRUDI KORPORATIBOA ETA WEBGUNEAK EUSKARAZ JARTZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO 2025ERAKO DEIALDIA

XEDAPEN HAUEK EZARTZEN DITUZTE OINARRI ARAUTZAILEAK:

- Zarauzko Udaleko dirulaguntzen ordenantza orokor arautzailea (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2024ko apirilaren 5ekoa, 66 zk.).
- Errotuluak, irudi korporatiboa eta web-guneak euskaraz jartzeko dirulaguntzak emateko oinarri espezifikoak (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2024ko apirilaren 5ekoa, 66 zk.)

1.- HELBURUA

Deialdi honen helburua da udalerriko establezimenduetan euskararen erabilera sustatzea.

Horretarako Zarauzko Udalak dirulaguntzak emango ditu establezimenduen irudian eta eguneroko jardueran hain garrantzitsuak diren hiru arlo hauek euskaraz jartzeko:

- Errotuluak
- Irudi korporatiboa
- Web-guneak

2.- LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

Laguntza hauek norgehiagoka araubidez emango dira.

3.- BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Pertsona edo entitate onuradunek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Helbide fiskala, egoitza edo ordezkaritza iraunkorra Zarautzen duten pertsonen edo elkarteek eskuratu ahal izango dituzte dirulaguntzak.
- Establezimenduak beharrezko lizentziak izatea (jarduerakoa, errotulua edota toldoa jartzekoa).
- Errotulua eta irudi korporatiboa euskaraz bakarrik idatzita egotea, eta euskara zuzena eta egokia erabiltzea.
- Ez da dirulaguntzarik emango errotuluan edota irudi korporatiboan izen berezia bakarrik agertzen denean; lan motaren edo jarduera profesionalaren aipamena hartuko da kontuan.
- Establezimenduetan kanpora begira jartzen diren inskripzioak euskaraz bakarrik idatzita egotea.
- Web-gunearen edukiak gutxienez euskaraz idatzita egongo dira. Horrek ez du eragozten beste hizkuntzaren batean ere idatzita izatea.
- Web-gunearen hizkuntzaren kalitatea eta zuzentasuna ezinbestekoak dira.
- Web-gunea elikatzea: bisita kopurua neurtzea, eguneratzea eta kalitatezkoa zein erabilgarria izatea.
- Web-gunearen edukien barruan legez babestutako gairik baldin badago, eskatzaileak eduki horien gaineko lizentziaren jabe izan behar du.
- **2024ko urtarrilaren 1etik aurrera** egindako fakturak aurkeztuko dira.
- Udalak eskatzaile bakoitzari behin bakarrik emango dio arlo bakoitzari dagokion dirulaguntza. Dirulaguntzaren eskatzaileak konpromisoa hartuko du diruz lagundutako elementuak euskaraz edukitzeko aurrerantzean ere.
- Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan sexismorik gabeko komunikazioa inklusiboa erabiliko du.

Honako web-guneak dirulaguntza deialdi honen aplikazio-eremutik kanpo geratuko dira:

- Web-gune pertsonalak.
- Edozein irakaskuntza erakundeei lotutako guneak.
- Eduki iraingarria edota pertsonen eskubideen aurkakoa dutenak.
- Alderdi politikoen web-guneak.
- Edukietara sartzeko mugaren bat jartzen dutenak, edo zerbitzuaren trukean ordainketa eskatzen dutenak.
- Udalak lehendik diruz lagundutako web-guneak, eta web-guneeen mantentze-lanak.

Onuradun izateko debekua:

Deialdi honetan araututako dirulaguntzak ezingo ditu jaso ondorengo zirkunstantziaren batean dagoen eskatzaileak:

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, Dirulaguntzei buruzkoak, 13. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean daudenak.
- Uztailaren 28ko 26/2015 Lege Organikoak jarritakoaren arabera, sexu-delituengatik zigor administratiboak, laboralak edo penalak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak.
- Emakume eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren aurkako helburuak, sarbide-sistemak, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak

dituzten, eta sexuaren, ideologiaren, jaioterriaren, nazionalitatearen edo sexu-joeraren ziozko diskriminazioa egiten duten pertsona fisiko nahiz juridikoak (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 40. artikulua).

- Berdintasunerako eta sexuagatik diskriminatuta ez izateko eskubidea urratzeagatik zigor administratibo, laboral edo penalak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 40. artikulua).

4.- ESKARIAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

Inprimakiak (7.4.A, eta 7.4.B ereduak) osorik eta ongi beteta aurkeztu beharko dira.

- Udaletxean (HAZ - Herritarren Arreta Zerbitzua, Kale Nagusia 29): astelehenetik ostiralera, 7:30etik 15:00etara; ostegunetan: 17:00etatik-19:00etara.
- Zarauzko Udalaren zerbitzu telematikoen bitartez: <https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/home.do?De=079&hizkuntza=EU>

*Eskatzaileak IFKa badu, eskaera derrigorrez egin behar du zerbitzu telematikoen bitartez.

Eskaera aurkezteak esan nahi du deialdian jasotako baldintza guztiak onartzen direla.

2025. urtean, hau izango da dirulaguntza hauek eskatzeko epea:

Zk.	Gaia	Epea
1	Errotuluak, irudi korporatiboa eta web-guneak euskaraz jartzeko dirulaguntzak	Hilabete bat, deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

5.- ZUZKIDURA ETA AURREKONTUKO PARTIDA

- Deialdi honetako dirulaguntzak emateko, sei mila euroko gastua baimentzen da (6.000,00 €), aurrekontu-partida eta gai honekin:

Zk.	Gaia	Aurrekontu-partida	Zenbatekoa
1	Errotuluak, irudi korporatiboa eta web-guneak euskaraz jartzeko dirulaguntzak	1.0701.481.01.335.00 2025 04319	6.000,00 €

- Jasotako eskarien arabera, ordaindu beharreko kantitatea handiagoa bada aurrekontuan horretarako izendatutako kopurua baino, orduan, banaketa proportzionala egingo da eskatzaile bakoitzari dagokion zenbatekoan.

6.- AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Dirulaguntza jaso ahal izateko, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira Zarauzko Udaleko Erregistro Nagusian:



- a) Eskaera-inprimakia behar bezala beteta: eskatzailearen datuak eta eransten diren dokumentuak adierazita (7.4A eranskina). Inprimakia eskuragarri egongo da www.zarautz.eus gunean.
- b) Entitate edo establezimendu eskatzailearen arduradunaren edo ordezkariaren NANaren fotokopia.
- c) Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia.
- d) Jatorrizko fakturak eta dagozkien ordainagiriak.
- e) Diruz lagundutako errotuluaren argazki bat.
- f) Diruz lagundutako irudi korporatiboaren ale bat (eta hori ezinezkoa denean, argazki bat).
- g) Dirulaguntza web-gunerako eskatu bada, horri dagokion jardueraren memoria.
- h) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarenak egunean dituela egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpena. (7.4B eranskina)

Udalak hala eskatuz gero, deialdiaren helburuak betetzeko argigarria den informazio osagarria aurkeztu beharko dute eskatzaileek.

7.- DIRULAGUNTZAK ESLEITZEKO ETA ZENBATEKOA ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK

Eman beharreko dirulaguntzak kalkulatzeko, honako irizpidea hartuko da kontuan:

Errotuluak:

- Dirulaguntza hau errotulu-elementuaren kostuaren % 50 izango da, gehienez 350,00 euro arte.

Irudi korporatiboak:

- Euskaraz jarritako irudi korporatiboaren elementu bakoitzeko kostuaren % 50 izango da dirulaguntza, baina kontzeptu horiengatik ematen diren dirulaguntzen baturak 350,00 euroko muga gainditu gabe.
Irudi korporatibotzat hartuko dira erakusleihoetako errotulazioa, ibilgailuetako errotulazioa, paperezko poltsak eta poltsa konpostagarriak, biltzeko papera, karta-azalak, orri idazpurudunak, bisita-txartelak, taloitegiak, albaranak, fakturak, etab.

Web-guneak:

- **Web-gunea euskara hutsean:** kostuaren %50 ordainduko du Udalak, 450,00 euroko muga gainditu gabe.
- **Web-gunea euskaraz zabalduko da, eta edukiak euskaraz eta beste hizkuntza batzuetan eskainiko dira:** kostuaren %40 ordainduko du Udalak, 360,00 euroko muga gainditu gabe. Kasu horretan web-gunea **beti** zabalduko da euskaraz, baina hizkuntza hautatzeko aukera emango du hasierako orrian eta hizkuntza bakoitzak bere kanala izango du.
- **Web-gunearen hasierako orriak hizkuntza hautatzeko aukera eskainiko du (euskara eta beste hizkuntza batzuk), eta edukiak euskaraz eta beste hizkuntza batzuetan izango dira:** kostuaren %20 ordainduko du Udalak, 180,00 euroko muga gainditu gabe. Hizkuntza bakoitzak ere bere kanala izango du, eta hizkuntzen erabilera parekatua izango da (hasierako orrian ere ez da beste hizkuntzarik lehenetsiko euskararen aldean).

8.- EBAZPENA ETA JAKINARAZPENA

Prozeduraren ebazpenak administrazio-bidea amaituko du, eta gehienez sei hilabeteko epea egongo da ebazpena emateko eta jakinarazteko. Deialdia argitaratzen denetik hasiko da epe hori kontatzen.

Prozeduraren ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeko 40. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta bere tramitazioa bat etorriko da lege horretako 42 eta 44 artikuluek jasotzen dituzten xedapenenekin. Hori guztia, emandako dirulaguntzak Zarauzko Udalaren web-gunean argitaratzeari utzi gabe.

Organo eskudunak

- Antolamendua eta instrukzioa (Instrukzio-organoa): Euskara Departamentuko arduraduna.
- Azterketa eta balioespena (Balioespen Batzordea): Kide anitzeko organo bat, Herritarren arloko Informazio-batzordeko kideek osatutakoa.
- Ebazpena (Organo eskuduna): Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari egokituko zaio, Udalaren administrazio-antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenekin eta aldi bateko eskuordetzeekin bat etorritik.

9.- ERREKURTSOAK

Interesdunek deialdi honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete administrazioarekiko auzietako Donostiako epaitegietan, deialdia argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertze errekurtsoa aurkezteko, deialdi hau onartu duen organo eskudunaren aurrean, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertze-errekurtsoarekin berariazko ebazpena eman arte edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

c) Euskara ikastaroak egiteko dirulaguntzak

Espedientea: 2025E9BK0001

Euskara Departamentuko dirulaguntzak jasota daude ZARAUZKO UDALEKO DIRULAGUNTZEN 2024-2027 PLAN ESTRATEGIKOAN (Udalbatzak 2024ko urtarrilaren 25ean onartutakoa), eta hauek dira haien oinarri arautzaileak: ZARAUZKO UDALEKO DIRULAGUNTZEN ORDENANTZA OROKOR ARAUTZAILEA (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2024ko apirilaren 5ekoa, 66 zk.) eta EUSKARA DEPARTAMENTUKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2024ko apirilaren 5ekoa, 66 zk.).

Oinarri horien helburua da euskara ikastaroak egiteko dirulaguntzak ematea.

Orain 2025. urteko dirulaguntzen deialdia onartu behar da. Hori dela eta, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU**:

Lehena.- Euskara Departamentuko dirulaguntzak norgehiagoka araubidez emateko 2025. urteko deialdia onartzea.

Bigarrena.- Ondorengo gastua onartzea:

Ekitaldia	Aurrekontu-aplikazioa	Zenbatekoa
2025	1 0701.481.01.335.00 2025 04319	40.240,62

Hirugarrena.- Eskatutako informazioa DIRULAGUNTZEN DATU-BASE NAZIONALEAN (BDNS) erregistratzea, hark emandako bitarteko elektronikoen bidez, deialdiaren testuarekin, haren laburpenarekin eta datu egituratuekin batera.

Informazioa erregistratu ondoren, BDNSk Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren esku utziko du deialdiaren laburpena, argitara dezan. BDNSk deialdiari eman dion identifikazio-kodea agertu beharko da laburpenaren argitalpenean.

EUSKARA IKASTAROAK EGITEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO 2025EKO DEIALDIA

XEDAPEN HAUEK EZARTZEN DITUZTE OINARRI ARAUTZAILEAK:

- Zarauzko Udaleko dirulaguntzen ordenantza orokor arautzailea (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2024ko apirilaren 5ekoa, 66 zk.).
- Euskara ikastaroak egiteko dirulaguntzak emateko oinarri espezifikoak (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2024ko apirilaren 5ekoa, 66 zk.).

Zarauzko Udaleko Euskararen Ordenantzak 41. artikuluan dio Udalak neurri egokiak hartuko dituela euskara gizarte esparru guztietan erabil dadin eta, oro har, gizarte bizitzan euskararen presentzia gehi dadin. Horretarako, ordenantzaren arabera, bitartekoetako bat euskararen zabalpen funtzionala da, alegia, elebidunen kopurua handitzea eta hobetzea, euskara ez dakitenek ikasteko bideak jartzea, eta dakitenak alfabetatu daitezen bitarteko egokiak bideratzea.

Zarauzko Udalari oso garrantzitsua iruditzen zaio helduen euskalduntzean eta alfabetatzean eragitea. Horrexegatik, hain zuzen ere, aurrekontu-partida bat ezarri du 2024-2025 ikasturtean zehar euskalduntze ikastaroetara doazen Zarauzko biztanleei beka emateko.

1.- HELBURUA

Deialdiaren xedea ondorengo da: 2024-2025 ikasturtean zehar helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egin dituzten zarauztar orori dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea. Eta hori guztia Zarauzko Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzak ezartzen duena kontuan izanik. .

2.- LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

Laguntza hauek norgehiagoka erregimenean emango dira.

3.- ONURADUNAK

Onuradunak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- Euskalduntze- edo alfabetatze-ikastaroren bat egitea 2024-2025 ikasturtean.
- Dirulaguntzaren xede den ikastaroak irauten duen bitartean Zarauzko udalerrian erroldatuta egotea.
- Ikastaroan eskainitako orduen %80 hartzea gutxienez. Hartutako orduen ehunekoa (%) kalkulatzeko, ikasleak ikastaroa noiz hasi duen hartuko da kontuan.

Onuradun izateko debekua:

Dirulaguntza hauek ezingo ditu jaso ondorengo zirkunstantziaren batean dagoenak:

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, Dirulaguntzei buruzkoak, 13. artikuluan aurreikusten duen egoeraren batean daudenak.
- Uztailaren 28ko 26/2015 Lege Organikoak jarritakoaren arabera, sexu-delituengatik zigor administratiboak, laboralak edo penalak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak.
- Emakume eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren aurkako helburuak, sarbide-sistemak, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak dituzten, eta sexuaren, ideologiaren, jaioterriaren, nazionalitatearen edo sexu-joeraren ziozko diskriminazioa egiten duten pertsona fisiko nahiz juridikoak (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 40. artikulua).
- Berdintasunerako eta sexuagatik diskriminatuta ez izateko eskubidea urratzeagatik zigor administratibo, laboral edo penalak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 40. artikulua).

4.- ESKARIAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

Inprimakiak (Euskarako 7.7A eta 7.7B ereduak) osorik eta ongi beteta aurkeztu beharko dira.

- Udaletxea (HAZ - Herritarren Arreta Departamentua, Kale Nagusia 29): astelehenetik ostiralera, 7:30etik 15:00etara; ostegunetan: 17:00etatik-19:00etara*.

* HAZ- Herritarren Arreta Departamentua uztailaren 1etik irailaren 10era ostegun arratsaldeetan itxita egongo da

- Zarauzko Udalaren zerbitzu telematikoen bitartez: <https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/home.do?De=079&hizkuntza=EU>

Eskabidearekin batera, bertan adierazten den dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Edonola ere, dirulaguntzaren eskaera ikastaroa bukatu ondoren egingo du ikasleak, ondorengo bi epe hauetakoren batean:

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

Gaia	Epearen hasiera	Epearen amaiera
2025eko uztaila baino lehen bukatutako ikastaroak	2025eko ekainaren 30a	2025eko uztailaren 11
2025eko uztailetik irailera bitartean egindako ikastaroak	2025eko irailaren 29a	2025eko urriaren 10a

5.- ZUZKIDURA ETA AURREKONTUKO PARTIDA

Dirulaguntza-eskaria **ekainaren 30etik uztailaren 11ra** bitartean egin behar den laguntzetarako, **36.740,62** euroko kopurua jarriko da 2025. urtean, ondorengo partidaren kontura: 1 0701.481.01.335.00 2025 04319 "Euskara sustatzeko dirulaguntzak".

Era berean, dirulaguntza-eskaria **irailaren 29tik urriaren 10era** bitartean egin behar den laguntzetarako, **3.500,00** euroko kopurua jarriko da 2025. urtean, ondorengo partidaren kontura: 1 0701.481.01.335.00 2025 04319 "Euskara sustatzeko dirulaguntzak".

Dena den, ekonomia-ekitaldi baten barruan emango diren laguntzen bolumen osoak ez du gaindituko diru-kontsignazio hori.

Lehenengo aldi, alegia, dirulaguntza-eskaria **ekainaren 30etik uztailaren 11ra** bitartean egin dutenen artean, ordaindu beharreko kantitatea handiagoa bada aurrekontuan horretarako izendatutako kopurua baino, orduan, banaketa proportzionala egingo da eskatzaile bakoitzari aldi horretarako dagokion zenbatekoan.

Bigarren aldi, alegia, dirulaguntza-eskaria **irailaren 29tik urriaren 10era** egin dutenen artean, ordaindu beharreko kantitatea handiagoa bada aurrekontuan horretarako izendatutako kopurua baino, orduan, banaketa proportzionala egingo da eskatzaile bakoitzari aldi horretarako dagokion zenbatekoan.

Baimendutako gastuaren zenbatekoa handitu edo murriztu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak, dirulaguntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

Aldi baten amaieran dagozkion dirulaguntzak eman badira eta eman beharreko gehieneko zenbatekoa agortu ez bada, aplikatu ez den kopurua ondorengo ebazpenetara eraman ahal izango da.

6.- AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Eskaera inprimakiarekin batera (7.7A Eranskina), agiri hauek aurkeztu behar ditu eskatzaileak:

- Eskatzailearen NANaren fotokopia.
- Matrikularen ordainagiria.
- Euskaltegiaren agiria, eskatzailearen asistentzia (%tan), ikastaroaren ordu teorikoak eta ikasleak gainditutako maila-kopurua adieraziko dituen.
- Ikastaroa, Zarauzko euskaltegietatik kanpoko euskaltegiren batean egiten bada, hori horrela egitearen arrazoiak zeintzuk diren azaldu beharko da idatziz. Kanpoan egindako ikastaro berbera Zarautzen egiterik balego, ez da dirulaguntzarik emango.
- Langabeen kasuan, "**Lan bizitzaren ziurtagiria**" (ikasturteak irauten duen bitartean LANBIDEN izena emanda egon beharko du eskatzaileak).
- Xede bererako eskatutako edo jasotako beste dirulaguntzei buruzko eta 2. artikulua 2d) puntuan zehazten den dirulaguntza publikoak jasotzeko debekurik ez izatearen inguruko erantzukizunpeko adierazpenaren inprimakia. (7.7.B Eranskina)

- g) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpenaren inprimakia. (7.7.B Eranskina)

Zarauztarra izatearen baldintza Udalak berak egiaztatuko du Udal Erroldaren bidez.

Era berean, Zarauzko Udal Euskaltegiko ikastaroren baterako dirulaguntza eskaria egin dutenen kasuan, Udalak berak egiaztatuko du ikastaroan hartutako orduen ehunekoa euskaltegiko datu-basearen bidez.

Nolanahi ere, eskatzaileei behar besteko informazio osagarria eskatu ahal izango zaie eskatutako dirulaguntza behar bezala baloratu ahal izateko.

7.- DIRULAGUNTZAK ESLEITZEKO ETA ZENBATEKOAK ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK

Eman beharreko dirulaguntzak kalkulatzeko, honako irizpideok hartuko dira kontuan, beti ere d) atalean ezarritako muga arabera:

a) Euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak:

- Ikastaroak irauten duen bitartean langabezia-txartela duen ikasleak: ordaindutako matrikularen %100 izango da bekaren zenbatekoa.
- Gainerakoak: ikasleak ordaindutako matrikularen %75 izango da bekaren zenbatekoa.

b) Udan egindako euskara ikastaroak

1. Ikastaroak irauten duen bitartean langabezia-txartela duen ikasleak: ordaindutako matrikularen %75 izango da bekaren zenbatekoa.
2. Gainerakoak: ikasleak ordaindutako matrikularen %50 izango da bekaren zenbatekoa.

c) Gainera, Udalak dirulaguntzetan ordaindu beharreko kantitatea handiagoa bada aurrekontuan horretarako izendatutako kopurua baino, kasu horretan banaketa proportzionala egingo da eskatzaile guztien artean.

d) Eskatzaile bakoitzak ikastaro mota bat baino gehiagorako dirulaguntza eska dezake, baina urteko gehienez ere 500,00 euro jaso ahal izango ditu. Baina, ikastaroren bat barnetegian egiten bada, gehienez ere 700,00 euro jaso ditzake.

e) Barnetegietako ikasleen kasuan, diruz lagundu daitekeen gastua eskola-orduen matrikularen zenbatekoari egokituko zaio; ez da laguntzarik emango mantenu- eta ostatu-gastuetarako.

8.- BATERAGARRITASUNA

Emango den dirulaguntza bateragarria izango da xede berarekin jasotako beste edozeinekin, baldin eta gainfinantziatorik ez badago laguntzen den xedearen guztirako kostuan. Horrelakoetan, dagozkion kenketak egingo dira, aldea ez ordainduz edo dagokion kopurua itzultzeko eskatuz.

Zarauzko Udalak eskubidea izango du eskatzaile bakoitzak emandako edozein datu beste administrazio publiko batzuekin erkatzeko, eta beti deialdi honen xedeko gaiaren barruan.

2024/2025 ikasturtean HABEren mailaren bat edo baliokideren bat egiaztatzen duten ikasleek HABEk 2025. urtean euskara-ikasleentzako egingo duen dirulaguntzetarako deialdian parte hartu beharko dute. Zarauzko Udalaren dirulaguntza HABEk emandakoaren osagarria izango da.

9.- EBAZPENA ETA JAKINARAZPENA

Prozeduraren ebazpenak administrazio-bidea amaituko du, eta ebazteko eta jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa izango da. Deialdia argitaratzen denetik aurrera hasiko da kontaktzen epe hori.

Prozeduraren ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeko 40. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta lege horretako 42 eta 44 artikuluek jasotzen dituzten xedapenen arabera tramitatuko da; betiere, emandako dirulaguntzak Zarauzko Udalaren web-gunean argitaratzea baztertu gabe.

Organo eskudunak

- Antolamendua eta instrukzioa (Instrukzio-organoa): Euskara Departamentuko arduraduna.
- Azterketa eta balorazioa (Balioespen Batzordea): Kide anitzeko organo bat, Herritarren arloko Informazio-batzordeko kideek osatutakoa.
- Ebazpena (Organo eskuduna): Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari egokituko zaio, Udalaren administrazio-antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenekin eta aldi bateko eskuordetzeekin bat etorritz.

10.- ERREKURTSOAK

Interesdunek, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakete deialdi honen aurka Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, deialdia argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik hautazko berraztertze-errekurtsua aurkezteko, oinarri hauek onartu dituen organo eskudunaren aurrean, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu, harik eta berraztertze-errekurtsuaren berariazko ebazpena eman arte edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

3.- GIPUZKOA 48KO UDAL APARKALEKUAN GARAJE PLAZEN ALDI BATERAKO LAGAPEN ERABILERA ESKUBIDEAREN AZKENTZEA

Espedientea: 2025IO390001

Tokiko Gobernu Batzarrak 2014ko urriaren 24an, honako akordioa hartu zuen:

2010eko irailaren 29an egindako bilkuran Udaltzaren erabaki zuen Zarauzko Eguneko Zentroko eraikinaren sotoan bizilagunentzat lurpeko aparkaleku zerbitzua ezartzea, eta administrazio-organo berezirik gabe, Udalak zuzenean kudeatzeko era onartzea. Era berean, erabaki zuen aparkaleku-plazen erabilera pertsona erabiltzaile bakoitzari dagokion herri-jabariko emakida eratu eta ematearen bidez gauzatuko dela.

Ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2010eko azaroak 4an egindako bilkuran, erabaki zuen "Gipuzkoa 48" udal aparkalekuan garaje plazak esleitzeko, herri-jabariko emakidaren araubidean, arauak onartzea.

Izena emateko epean, izena eman zutenak 4 dira, 100 euroko fidantza jarri zuelarik bakoitzak. Aparkalekuak 47 garaje-plaza ditu.

Aparkalekuaren kudeaketaren inguruan, Udalbaltzak, 2011ko Martxoaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen "Zarautz-lur sa udal erakundearen eskuetan jartzea Gurmendi plazako eta Gipuzkoa kalea 48ko udal aparkalekuen kudeaketa, bertako garaje-plazak herri-jabariko emakidaren araubidean esleitzeko arauetan xedatutakoaren arabera."

Eskaerak ikusita, egokia dirudi prozedura bertan behara uztea, fidantzak itzuli eta arau berriak onartzea.

Hori guztia ikusita, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, **ERABAKI DU:**

Lehena.- Gipuzkoa 48 udal aparkalekuan garaje plazak herri jabariko emakidaren araubidean esleitzeko prozedura bertan behera uztea eta izena eman zuten 4 eskatzaileei fidantza itzultzea.

Bigarrena.- Zarautz-lur udal erakundeari Gipuzkoa 48 udal aparkalekuko 47 garaje-plaza lagatzea eta aldi baterako lagapen erabileraren eskubidearen kudeaketa agintzea.

1. Aldi baterako lagapen erabileraren eskubidea (alokairua): Zarautz-lurrek aukera ematen du Gipuzkoa 48 parkinean bai auto eta bai motorrek plazak alokatzeko. Denbora batez erabiltzeko lagapenaren (errenta) iraupena **gehienez urtebetekoa izango da eta aldi beretan berritu ahal izango da.**

Ordainketa hileroko egingo da, banku-helbideratzearen bidez. Ordainketa hilaren lehen egunetan egingo da.

	HILEKO KUOTA
AUTOAK	60 € (BEZ barne)

2. Aparkalekuaren mantenu gastuak: Zarautz-lur udal erakundearen kontura izango dira aparkalekuaren mantenu gastuak.

3. Garajeak aukeratzeko: Eskabideak aurkezten diren dataren arabera erabakiko da garaje-plazak aukeratzeko ordena.

4. Kontratuak: Zarautz-lur udal erakundearen administrazio kontseiluak onartuko du kontrato eredia eta ordezkaria ahalmenduko du kontrato hauek sinatzeko.

Akordio horren baitan, Zarautz Lur SAUk aipatu aparkalekuen alokairu kontratuak izapidetu ditu. Kontratu horien indarraldia urtebetekoa da, aldi beretan berritzen direlarik, beraz, kontratuak urtez urte berritu daitezke mugaegunik gabe.

Dena den, Mugikortasun eta Ondare ataletan egindako azterketa dela medio, Gipuzkoa 48ko aparkalekuak administrazio emakida bidez 50 urterako esleitzeko prozedura martxan jarri nahi da eta horretarako beharrezkoak diren izapidetak martxan daude.

Hori horrela, egun indarrean dauden alokairu kontratuak azkendu behar dira, dagokion prozedura izapidetu ondoren, administrazio emakidadunak aparkalekuak erabiltzen has daitezten.

Beraz, alokairu kontratuen azkentze datak ezberdinak direnez, 2025. Urtean zehar azkentzen diren kontratuen berritzea ekidin behar da, berariazko erabakia hartuz, horiek urtebetez ez berritzeko. Halere, aparkalekuak hutsik gelditu ez daitezten (horrek kaleko aparkalekuen erabileran izan dezakeen eragin negatiboagatik) emakidadunen erabilera hasi arte aparkaleku horiek alokatuta jarraitzea egokitzat jotzen da.

Hortaz, proposatzen da, kontratuak beste urtebetez berritzea moztea eta udalak markatutako datara arte alokatzen jarraitzeko interesa duenari, alokairuan data horretara arte jarraitzea ahalbideratzea. Data egokitzat jo da irailaren 30a, udaldiko TAO data horretan amaitzen delako, eta beraz, data horretatik kanpo kalean aparkatzeko leku gehiago egoteaz gain, TAO eremua murriztagoa delako.

Ondorioz, 2025. Urteko data ezberdinetan amaitzen diren alokairu kontratuak luzatzeko interesa duten erabiltzaileei, hauek luzatu ahal izango zaizkie, baina soilik 2025eko irailaren 30era arte. 2025eko urriaren 1ean aparkaleku guztiak erabilgarri egon beharko dira, administrazio emakida esleitu zaien pertsonak berauek erabiltzen hasteko aukera izan dezaten.

Hori horrela, eta 2014ko urriaren 14an organo honek hartutako akordioa kontuan izanda, Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez, honako hau **ERABAKI DU**:

Bakarra.- Zarautz Lur S.A.U.ri agintzea, beren indarraldia bukatzen duten edo bukatua duten aldi baterako lagapen erabilera kontratuak berritzeko interesatu duten erabiltzaileei, gehienez 2025eko irailaren 30era arte berritzea.

4.- ESKARI GALDERAK

Ez du inork hitz egin gai-zerrendako puntu honetan.

Aztertzeko besterik ezean, bilkurari amaiera eman diote, arratsaldeko ordu bata eta hamar direnean eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.

